

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

215/2016 Foru Agindua, irailaren 7koa, interes publikoa adierazten diona Bernedoko udalerrian, hain zuzen ere Arluzeako lurzoru urbanizaezinean, telefono deien banagune bat eraikitzeari

AURREKARIAK

Telefónica de España SAU sozietateak eskaera egin du Bernedo udalerrian, Arluzeako 2 poligonoko 522 lurzatian, zeinak lurzoru urbanizaezinaren sailkapena eta leheneratu beharreko basogintzako babes zonaren kalifikazioa dituen, telefono deien banagune bat eraikitzeke proiektuari interes publikoa adierazteko.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, arautzen dituen baimen izapideak betetzearren, Bernedoko Udalak espedientea bidali zuen, udal arkitektoaren txostena barne.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Sail honek eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren arabera.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan ezarritako araubideari jarraituz, aplikatzekoa den legedi sektorialak edo lurralde planeamenduak interes publikokotzat jotako zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak ezartzeko xede espezifikoak eta bakarria duten jardunak egin ahal izango dira lurzoru urbanizaezinean, baldin eta, gainera, kasu bakoitzean haien interes publikoa adierazten bada dagokion foru diputazioaren ebazpenaren bidez, alde aurretik hogege egunetz jendaurrean edukitzeko izapidea beteta.

2016ko uztailaren 15ean espedienteari hasierako onarpena ematen zion foru agindua eman, eta ALHAOra bidali zen argitaratua izan zedin. Aldizkari horretan 2016ko uztailaren 27an (84 zenbakia) argitaratu zen. Bestalde, espediente horren aurka erreklamazioak aurkezteko arauzko 20 egunetan ez zen inongo alegaziorik aurkeztu.

Maiatzaren 9ko 9/2014 Legeak, telekomunikazioenak, 2. artikuluan ezarritakoaren ondorioz datorkio interes publikoa aztertutako kasuari. Artikulu horretan ezartzen denez "lehia araubidean ematen diren interes orokorreko zerbitzuak dira telekomunikazioak".

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, lurzoru eta hirigintzarenaren, 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, interes publikoa adieraztea Telefónica de España SAUK sustatuta eta Bernedoko Udalak izapidetuta Bernedo udalerrian, Arluzeako 2 poligonoko 522 lurzatian, zeinak lurzoru urbanizaezinaren sailkapena eta leheneratu beharreko basogintzako babes zonaren kalifikazioa dituen, telefono deien banagune bat eraikitzeari.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehen aginduzko udal baimena lortzeko beharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Interes publikoa aitortzeak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta horrek aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik. Bernedoko Udalak, dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik,

baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen ebazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsoa.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 7a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO